



EKO SOUND CLUB



RECICLA TU
RITMO

EKO SOUND
AURKIBIDEA

1-IDEIA

2-SEGMENTAZIOA

3-FUNTSEZKO
ELKARTEAK

4-IRABAZI
ITURRIAK

5-KANALAK

6-BEZEROEKIN
HARREMANA

7-FUNTSEZKO
BALIABIDEAK

8-FUNTSEZKO
JARDUERAK

9-KOSTUAK

EKO SOUND CLUB

Izan dugun ideia diskoteka ekologiko bat sortzea da. Nola izan daiteke diskoteka bat ekologikoa?

Diskoteketan dagoen arazo ekologiko larriena kanpoan hondakinak lurrera botatzea da. Gazteek batez ere, diskoteketatik kanpo edaten dute eta, azkenean, zabor guztia lurrera botatzen dute parkeak eta kaleak kutsatuz. Horrek gatazka dakar diskoteken bizilagunen artean eta ingurumenean.



Zergatik gertatzen da hori? Gazteek ez dute diru nahikorik, eta horregatik kontsumitzen dute kanpoan, gaua merkeagoa izan dadin.

Kontuan hartu behar da, halaber, krisiaren ondorioz prezioek izan duten igoera handia, horregatik diruaren eskasia.

Gure diskoteka besteengandik bereizten da ingurumenaren aldekoa delako. Kutsadura oso arazo larria da eta ahal dugun neurrian guztiok lagundu beharko genuke, guztion erantzukizuna delako. Arazo hau konpontzeko ideia bat euki dugu: Gure diskotekaren kanpoaldean dirua edo lokalean gastatzeko baleak ematen dituzten paperontziak jarriko ditugu, birziklatzearen truke. Horrela, gazteek, edan ostean zaborra zaborrontzira botako dute etekin bat izango dutelako.





KOKAPENA

Kokapenari dagokionez, Bilbon eta inguruetan tamaina handiko fabrika eta jatetxe asko daude egoera ezegonkorrean eta abandonatuta. Horregatik, eraikin horietako bat berrerabili, eraberritu eta gure diskoteka eraiki nahi dugu. Eraikinari bigarren bitzta bat ematen eta eraikuntza berri batekin espazio natural gehiago suntsitu gabe.

Gure apostua Artxandako San Roque bideko Miramar jatetxea da. Jatetxe honek 650m2 eraikiak ditu eta guztizko 5270m2-ko azalera. Prezio baxuan eros dezakegu oso hondatuta dagoelako. Eraikinak erreforma handiak jasan beharko ditu baina espazio erabilgarria itzela da eta ondo kokatuta dago. 2020an, prezioa 890.000 eurokoa zen baina itxita eta abandonatuta zegoelarik, bandalismoaren biktima bihurtu zen haren estruktura eta altzariak kaltetuta izanda. Egoera hori dela eta, prezioa 398.000 euro negoziagarrietara jaitsi da jatetxeak dituen 3 solairu eta lurrengatik.



Si estás interesado en vender o alquilar un inmueble ponte en contacto con nosotros para que te hagamos una valoración.

Obtener valoración

890.000€

VENTA

ARTXANDA MIRAMAR

La oferta se corresponde a un edificio, actualmente destinado a restaurante, dentro de una parcela de terreno de 5.270 m2. Dispone de amplias superficies preparadas para la actividad de hostelería. Esta preparado para su uso, con varias cocinas preparadas, salones hasta para 300 comensales y zonas de esparcimiento y juego para niños.

Encuentra tu hogar perfecto
www.vascasa.com





Se Vende 398,000€ Negociable - Edificio



ZERBITZU GEHIGARRIAK

Gainera, gure diskotekak beste zenbait zerbitzu desberdin ditu, adibidez:

Gure bezeroen segurtasuna bermatu nahi dugu, guretzat garrantzitsuak direlako eta guk haiei ahalik eta zerbitzurik hoberena eskaini nahi diegulako. Horretarako Taxiekin aliantzak egin ditugu gure diskotekara heltzeko eta gure bezeroek segurtasunez bueltatzeko haien etxeetara. Hau beste arazo larri bat da, gauean eraso asko daudelako eta horrek kezka handia sortzen du kontsumitzaileengan. Nork ez du izan beldurrik gauean bakarrik egon denean?



Gure bezeroen segurtasuna bermatu nahi dugu, guretzat garrantzitsuak direlako eta guk haiei ahalik eta zerbitzurik hoberena eskaini nahi diegulako.

Beste ezaugarrietako bat gure esparruan izango dugun aire zabaleko atala da. Bertan, bezeroek musikaz gozatu ahal izango dute, aire zabalean, urduritzen badira edo airea hartu nahi badute ere. Horrela, bezero guztien ongizatea eta erosotasuna bermatuko dugu, jende askok espazio itxietan larritzen delako.

Bestalde, gehigarri gisa, janari makinak jarriko ditugu diskoteka barruan, norbait behar izanez gero.

Gure diskoteka bikaina da gauaz gozatzeko, oso handia eta merkea delako. Hona hemen gure diskotekaren plano: <https://home.by.me/es/project/unaimesperuza-3449/ekodiskoteka>

Sarrera 18€-koa da, arrazoizko prezio bat eskeintzen ditugun zerbitzuetarako. Gainera, kanpoaldean birziklatzen baduzu, dirua lortuko duzu sarrera erosteko edo barruan kontsumitzeko. Gure ideia berritzaile hau zenbait arazo konpon edo sahiestu dezake, adibidez, kutsadura murriztea eta gauean segurtasunez egotea. Ekologia eta ingurumena inporta bazaizu hau da zure ametsetakoa diskoteka!

**SARRERA
18€-KOA
DA**

